

# **BASERRIEN HISTORIA**

Baserriak duela urte aunitz erabiltzen ziren, eta gaur egun ere erabiltzen dira. Agerikoa denez, urteekin eraldatzen joan dira.

Baserrien gauza aunitz aldatu dira, baina nagusiki aldatu direnak baserriaren egitura, erabilera eta tresnak dira.

Ez dakigu zehatz-mehatz noiz hasi ziren baserriak eraikitzen, baina izan zuten egitura nagusiena badakigu, eta hau da: Azpian abereak, erdian baserritarrak eta ganbaran abereentzako lastoa. Egitura hau erabiltzen zen hiru arrazoirengatik.

## **1.Beroa:**

Temperatura hagitz garrantzitsua zen orain dela ez asko arte kalefakziorik ez zegoelako, horregatik abereak erabiltzen zituzten. Abereek beheiko pisuan jarrita sortzen zuten beroa erdiko pisura joaten zen, pertsonak bizi ziren tokira eta lastoa goian izanda beroak etxea isolatzen zuen.

## **2.Erosotasuna:**

Lanerako egitura erosoena zen, abereak zaintzeko edo abereak mugitzeko beheiko pisua errazena zen, eta lastoa ezin zuten animaliekin jarri (jan egingo zutelako) ganbaran jartzea normalean erosoagoa zen. Gainera, ganbarara sartzeko normalean beheiko pisutik eskailera bat zuten.

## **3.Espazioa eta teknologia:**

Baserriek lehenago egitura hori zuten ez zirelako hagitz handiak eta oraindik ez zirelako ikuiluak, lasto metak etab. asmatu.

Gaur egun baserriek ez dute egitura hau erabiltzen abereak ikuiluetan dituztelako, berogailuak daudelako eta etxeak hobeto eraikiak

daudelako. Horretaz gain, baserritarrak aunitz gutxitu dira industrializazioarengatik, eta gelditzen direnek autokontsumorako egiten dute. Industrializazioak bertze eraldaketa handi bat ekarri zuen; lehenago baserrietan dena egiten zuten, landatu, abereak gizendu, esnea atera, gazta egin...Dena baserrian egiten zuten baina industrializazioak hori eraldatu zuen.

Orain autokontsumorako lan egiten ez dutenek lan bat bakarrik egiten dute eta gehienetan produktu bat bakarrik ere.

Adibidez: baserritar batek patatak landatzen ditu eta biltzen ditu, ez du deus gehiago egiten, edo esnea ateratzen duen batek, lehenago gazta ere egiten zuten baina orain ez. Orain esnea bertze bati saltzen dio bertze horrek gazta egiteko.

Tresnak: tresnak ere gutxitzen joan dira makinen erabilera areagotuz joan den heinean. Lehenago tresna ugari zegoen, eta ia denek indar fisiko handia behar zuten. Hori pixkanaka eraldatzen joan zen eta gero eta indar gutxiago eskatzen hasi ziren. Garatuz joan ziren gaur egungo traktore eta makinetan bilakatu arte (azken hauek ez dute indar fisikorik eskatzen).